



ALKATETZAREN TXOSTENA. 2015EKO AURREKONTUA.

Memoria honetan 2015erako Aurrekontuaren dokumentua aurkezten dugu, orekatua diru-sarreretan eta gastuetan, eta 30.800.383,97 euroko zenbatekoa duena.

Aurrekontu-proposamen honekin ematen diogu amaiera udal agintaldiari. Azken lau urte hauetan errepikatu zaigun ezaugarri nagusia krisialdi ekonomiko globala izan da, eta nola ez, horrek azkenean eragin egiten dio baita tokikoa den horri ere, erakundeek duten diru-bilketa ahalmenari zailtasun itzelak sorrarazten dizkio, eta horren ondorioz, baita gure gastu-ahalmenari ere. Horri danori gorago dauden erakunde batzuetatik datozkigun murrizketa sakonak gehitzen badizkiogu –murrizketak arlo sozialean hezkuntzan edo osasun alorrean-, oraindik gehiago okertzen da testuinguru sozioekonomikoa; hortaz, familien mikroekonomietan ere oraindik larriagoa da horren eragina.

Hasieratik bertatik zailtasun horiek izan ditugun arren, azken urte honetan, beste behin ere kapaz izan gara udal honek duen finantza-irrotasuna eta gobernu-taldeak kudeaketagintzan duen ardura erakusteko, udal egitura osatzen duen pertsonal teknikoak eraginkorki aholkatuta.

Orokorrean Aurrekontuak 2 milioi inguriko jaitsiera badu ere 2014. urtekoarekin konparatuta, hauxe argitu behar dugu: jaitsiera hori, 2015. urtean, Debabarreneko Mankomunitatea izango da hondakin-bilketa zerbitzuaren kudeaketa osoa bere gain hartuko duena, eta horren ondorioz, aurreko urteetako aurrekontu-dokumentuetan sortzen ziren diru-sarrerak/gastuak horren ondorio ekonomikoak ere bai. Aldagai horren ondorioa kontuan edukita, Aurrekontuaren proposamenak % 1,7aren igoera bat du joan zen jardunaldikoarekin konparatuta. Horren ondorioz, hauxe esan dezakegu: aurreko urteetan abian jarritako hazkunde bidean segitzen dugula, baina errealitateari egokitutako portzentajeetan, mugitzen garen testuinguru sozioekonomikoarekin



arduratuta, eta etorkizunari begira, baikortasun puntu batekin, izan ere, geroak zaila izaten segituko baitu, baina itxaropentsua udal kudeaketarentzat.

Bestalde, dokumentua hobeto ulertzeko, proposatzen dugun azken emaitza honetan modu garrantzitsuan eragin duten kontu bi hauek aipatu behar dira:

- Alde batetik, beste behin, PSE-EE eta EAJ-PNV alderdien artean Eusko Jaurlaritzaren egonkortasunerako izenpetutako egonkortasun akordioaren fruitu eta 2015eko Jaurlaritzaren aurrekontuen negoziazio-prozesuaren ondorioz, PSE-EEK zuzenketa berri batzuk sartzea lortu du, batik bat, gure hirian irisgarritasuna eta hiri-inguruneak hobetzeko, eta kontu-sail horiek, guztira, 2,5 milioi eurokoak dira, gure ingurunean dagoen inbertsio-gaitasun handienetako bat izaten uzten digutenak.

Era berean, eta udal aurrekontu hauetan islatu ez bada ere, akordio honek bermatu egiten du urte honen erdi aldera amaituta egongo direla Eibarko trenbidearen desdoblamentu-obrak eta trenbide-gaina estaltzeko obrak; baita azpiakutuen Eibarko Hospitalaren eraikuntza-obrak ere.

- Bestalde, Udal Aurrekontuak aztertu, negoziatu eta adosteko prozesu horretan, akordioak adostu dira, alde batetik Partidu Popularrarekin, eta bestetik EH Bildurekin. Adostu diren akordio horiek agiri hau aberasteaz gain babes bat bermatzen uzten dute, eta horrek, litekeena bada, oraindik legitimitate gehiago ematen dio.

Proposamen hau egitean gidarizat hartu diren irizpideetan eta oinarrietan, hiritarrei, gure kudeaketa bideratzen duten printzipio ideologikoak helarazi nahi dizkiegu, baita agiria egiteko balio duten prozedurak ere:

- Errealitate sozioekonomikoa. Izan ere, datu makroekonomiko batzuk hazkunde ekonomikoaren bidezidorren bat ikusten uzten badute ere, krisia, oraindik ere, gogor ari da jotzen; beraz, ekintzak jerarkizatu eta proiektuak lehenetsi egin behar dira.

- Gobernu-talde honek lehentasun ukaezintzat du udal zerbitzu guztiak mantentzea, baina ez hori bakarrik: baita udal zerbitzuen kalitateari eustea ere. Gure iritziz, eskaintzen ari garen zerbitzuak kalitatezkoak dira, eta zerbitzu horiek eskaintzen



ari gara beste erakunde batzuk beren eskumenekoak diren zerbitzuetan murrizketak etengabe egiten ari direnean.

- Herritarren parte-hartzea da, egunetik egunera, udalbatza honek duen nortasunaren bereizgarrietako bat. Denon artean, egiten duten lana eta jarduera bermatzen jarraitzeko, gure herriko elkarteekin, erakundeekin eta bertako gizarte-, kultura- eta kirol-talde guztiekin ditugun hartu emanen bidez; nahiz modu iraunkorrean irekita dauden komunikazio-kanal horietan edo auzoz auzo egiten ditugun bileretan, oso informazio baliotsua eskuratzen da udal sail guztien lanaren zati bat gidatzeko eta, hala bada, bide horietatik datozkigun eskariak burutzeko aurrekontuari kontu-sailak eransteke.

- Gobernu programa irizpide garrantzitsu bat da aurrekontuak egiterakoan, hiritarrek beren konfidantza ematerakoan konpromiso batzuen arabera eman zigutelako, eta krisialdi ekonomikoagatik proiektu batzuen plangintza aldatzera behartuta bagaude ere, programa hori betetzen joatea da gure asmoa.

Azkenik esan behar dut egokiera-irizpideek ere aprobetxatu egin behar direla dokumentua aberasteko. Memoria honen hasieran bertan aipatu dudan bezala, bai PSE-EE alderdiak Eusko Jaurlaritzarekin hartu duen akordioak -Autonomia Erkidegoko Gobernuaren 2015eko kontuak onartzeko bidea erraztu eta gure hiriarri 2.5 milioi euro eskuratzen utzi diona-, bai Partidu Popularrarekin eta EH Bildurekin Udal Aurrekontuak negoziatzerakoan lortutako adostasunak, hauxe baino ez dute erakusten: egokiera-irizpideak balitezkeela izan eta, ondo erabiliz gero, positiboak direla.

DIRU-SARREREN EGOERA

A. ERAGIKETA ARRUNTAK.

1. Kapituluak. Zerga zuzenak.

2014. urtearekin konparatuz gero, jardunaldi honetan % 3,6aren igoera izango dugula iragar genezake.



2015. urterako, udal honek tasak, zergak eta prezio publikoak bere horretan uztea erabaki du; beraz, esandako igoera hori ondasun higiezin zergak eta ekonomia jardueren gaineko zergak izango duten portaera onaren inguruko aurreikuspenetik dator, eta neurri txikiago batean, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergatik.

2. Kapitulu. Zeharkako zergak.

Kapitulu hau historian zehar izan duen gutxienekoetan aurkitzen da, ekonomian eta eraikuntzan -eta bigaren horretatik letozkigukeen zergetan- krisialdi ekonomikoak izan duen eraginaren ondorena dugu.

Aurreko jardunaldian gogora ekarri genuen bezala, epigrafe honen kuantifikazioa baldintzatuta zegoen Eusko Jaurlaritzak Azpiakutuen Eibarko Ospitalearen obra-lizentzia tramitatzera.

2014ko Aurrekontua egiterakoan zehaztasun osoz ez zekigunez lizentzia noiz tramitatuko zen, zuhertasunak eraman gintuen epigrafe honetan zenbateko zentzudun bat jartzera.

2014. urtean zehar, aurreikusi genuen bezala, PSE-EE eta EAJ-PNVren artean Eusko Jaurlaritzari egonkortasuna ematearren lortutako akordioaren ondorioz, obra-lizentzia tramitatu zen eta gure hiriarendako estrategikoa den azpiegitura hau eraikitzen hasi zen; beraz, lizentziari zegokion zenbatekoa udalaren diru kutxan sartu zen.

2015. urterako ez denez aurreikusten zerga hori sortaraziko lukeen ezein azpiegitaririk, arrazoizkoena 2014. urteko zenbateko berdinari eustea da.

Dena dela, ematen du etxe partikularretan obra txikiak suspertzen hasi direla, etxe barruak konpontzekoak nahiz fatxadak eta teilatuak berriztatzekoak.

Hala ere, gure hirian, herri gehienetan ez bezala, ez da kobratzen komunitateko errehabilitazio obren zerga edo etxe barruetan egiten diren obrei dagokiena.



Horri, fatxadak berriztatzeko obretarako etxejabeen komunitate edo erkidegoei diruz laguntzeko hartutako neurriak gehitzen badizkiogu, baita igogailu zaharrak kendu eta berriak ipintzeko edo pegoretako irisgarritasuna hobetzera zuzendutakoak, hauxe da ikusten duguna: hiritarren bizi-kalitatea hobetzeko hartzeko neurri askoren udal politika dugula hor, eta ehundaka izan direla onura horiek jaso izan dituzten herriko familiak.

Eta hasieran esan dugun bezala, krisialdia izanik ere, udalak dirua biltzeko gaitasun gutxiago badu ere, gure konpromisoa sendoa da politika-mota horren alde egitean, politika horiek gure herriko familien bizi-kalitatea bilatu nahi baitute gertuen duten horretan: beraien etxeetan.

3. Kapituluua. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk.

Atal honetan bi gauza azpimarratu behar dira, beren portaeran eragin zuzena baitute.

Alde batetik, tasak, zergak eta prezio publikoak bere horretan uzteko erabaki politikoa: horrelako erabaki bat hartzea eskatzen zuten urtetik urterako KPIren bilakabideak eta krisialdiaren eraginak.

Bestalde, dagoeneko esan dugun bezala, Debabarreneko Mankomunitateak urte honetatik aurrera bere gain hartuko du hondakin bilketa zerbitzuaren kudeaketa osoa; beraz, erreziboak kobratzea ere haren eskuetan geratu da. Atal horrek lehen Kapitulu honi 2,5 milioi euroko diru-sarrera ekartzen zion, baina Udalak Mankomunitateari urtero transferitzen ziona beste horrenbesteko zenbatekoa zenez, konpentsatuta geratzen da gastuen atala.

Kontzeptu hori alboan utzita, Kapituluak bere osotasunean % 4,3ko igoera aurreikusten du. Eta berriro diot: kontu-sail gehienak bere horretan uztea erabaki arren. Igoera txiki hori zehapen prozeduren diru-bilketak duen hobekuntzatik dator; baita lurzorua eta bide publikoak okupatzen datozen diru-sarreretatik ere.

4. kapituluua. Transferentzia arruntak.

Kuantitatiboki, kapitulurik garrantzizkoenaren aurrean gaude diru-sarrerak aztertzean.



Eta kapitulu honetan, Udalak finantzatzeko Foru Funtsaren portaerak du benetako protagonismoa, kapitulu horren % 90 inguru hortik baitator, beraz, diru-sarreraren % 50a.

Foru Funtsak duen portaera nolakoa den ikusita badakigu nolako bilakabidea izango duen Udal Aurrekontuak, baina ez hori bakarrik: lurralde honen ekonomia haztatzeko modua ere ematen digu, izan ere, Funts hori, Foru Ogasunak zerga bidez dirua biltzeko duen gaitasunean oinarritzen baita; beraz, Foru Funtsak gorako joera badu, ematen du ekonomiak ere onera egiten duela.

Bestalde, orain arte, Foru Erakundeak Udalei helarazten zizkien aurreikuspenak optimistegiak izaten ziren, eta horren ondorioz, Toki Administrazioak urte akaberan diru-zenbateko handiak itzuli beharrean aurkitzen ziren, toki erakundeetan finantza-desoreka handiak sortzen zituztenak. Horren adibidea hemen bertan dugu: 2008tik 2013 urtera, Eibarko Udalak 9 milioi euro itzuli behar izan zituen.

Azken urte honetan aurreikuspenak doituagoak izan dira, hortaz, 2015. urtean Foru Aldundiak berak helarazi digun aurreikuspena islatzea erabaki dugu.

Balorazio horren ondorioz, kapituluak % 6a baino zertxobait gehiagoko igoera du.

Kapitulu honetan azpimarratzekoa da enplegua suspertzeko ahalegin ekonomikoak mantendu izatea, banako mailan nahiz enpresa mailan. Hasieran behintzat ez da aurreikusten Gipuzkoako Foru Aldundiak diru-ekarpenik egingo duenik enplegua sustatzeko programetarako.

Zoritxarrez azpimarratzekoa da GL laguntzarako kontu-sailak izan duen % 15,5aren igoera. Zenbateko hori Eusko Jaurlaritzak eskumen aldetik duen obligaziotik datozen diru-sarreretan ezartzeko, aurreikusitako gastu-premiak nolakoak diren baloratu ditugu. Itxoiten duguna da Eusko Jaurlaritzak bete ditzala dauden premia ekonomiko guztiak bere obligazioa delako. Hala ere, Udal honetatik, erantzukizun moralaren izenean, aurre egingo diogu gastu horri geure baliabide propioekin Eusko Jaurlaritzaren ekarpenarekin eskaera guztiei erantzuteko iritsiko ez balitz.

5. kapitulua. Ondarezko diru-sarrerak.



Urtero bezala, kapitulu honek diru-sarrera denen ondoan duen eragina anekdotikoa da, beraz, ez du merezi horren inguruko baloraziorik egitea.

B. KAPITAL ERAGIKETAK.

7. Kapituluua. Kapital transferentziak.

Kapitulu hau aurreko urteetakoekin konparatzeak ez du zentzurik, urteko kuantifikazioa, kapitulu honetan, udal izaerako programetan eta inbertsioetan beste erakunde batzuek ematen duten diru-laguntzaren arabera delako.

Memoria honetan sarritan aipatu dugun bezala, PSE-EE eta EAJ-PNV alderdien arteko akordio-esparru bat dago Eusko Jaurlaritzari egonkortasuna emateko, eta horren bidez, sozialistek sartutako zuzenketen bidez, Udalarri transferitzeko aurrekontuko partidak edo kontu-sailak ezarri dira, hirian hobekuntzak egiteko, eta beste partida batzuk ere badaude -Udal Aurrekontuan islatzeke- Eibarrentzat garrantzizkoak diren proiektuetan eragina dutenak.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu du urte honen lehenengo sei hilabeteen trenbideari dagozkion obrak amaituko dituela; eta, aldi berean, dagoeneko hasita dauden obrei erritmo handiago bat jarriko diela gure hirian azpiakutuen Ospitalea ezartzeko.

Bestalde, 2015. jardunaldi honetarako, 2.5 milioi euroko diru-ekarpina lortu dugu gure hirian inbertsioak egiteko.

Zenbateko horrekin gure hiriko irisgarritasuna hobetzen joango gara Eulogio Garate eta Mutiola kaleen arteko igogailu berri batekin, eta, aldi berean, Txomo, Bidebarrieta eta Egigurentarren kaleetako parkeetan eraberritze-obrak egingo ditugu.

Diru-ekarpen horrekin batera –kapitulu honi zentzua ematen diona- beste plan eta programa batzuk ere badaude eta horiei lotuko gaitzaizkie; espero duguna da Udalak dagoeneko egiten duen ahalegin ekonomikoa leunduko duten diru-sarrerak izatea.



8. kapitulua. Finantza-aktiboak.

5. kapituluaren kasuan bezala, horren eragina oso txikia da eta pertsonalaren soldata-aurreratzeen diru-itzulerak dira.

9. kapitulua. Finantza-pasiboak.

Kapitulu honekin ezartzen da sarreren eta gastuen arteko oreka. Aurreko jardunaldiaren kontuei zegokien Memorian azaldu nuen bezala, Udal Kontu-hartzaitza sailaren profesionaltasun eta gaitasun maila handiari esker, erantzukizunez jokatzeari eta gastu publikoaren kontrolari eta arrazionalizazioari esker, dugun zorpetze-maila benetan inbidia emateko modukoa da.

Jardunaldi honetarako zorpetze-proposamena 700.000 euro ingurukoa da, zenbateko zeharo onargarria eta goragoko araudia, lege-esparrua, betetzen dutena; baita Administrazioa zorpetzeko ezarritako mugak ere.

GASTUEN EGOERA.

Memorian zehar azaldu eta aipatu izan dugun bezala, urte honetako zenbatekoa zertxobait igo da aurreko urtekoarekin konparatuta, eta aurreikusitako inbertsio gehienek Eusko Jaurlaritzak egiten duen aparteko diru-ekarpen horietatik datoz. Hori horrela eta gastu-kapitulu gehienak lehendik finkatutakoak direla kontuan hartuta, kontuek uzten duten malgutasun maila, dauden udal talde beste interpretaziori eta proposamenei dago lotuta. Hala ere, Partidu Popularrarekin eta EH Bildurekin hartutako akordioak, udalaren konposizio politikoaren gehiengo handi bat islatzen duen dokumentua ikustarazten du, 2015. urte honetako erronkak kudeatzeko erreminta legez oraindik legitimitate gehiago ematen diotenak hori litekeena bada.

A. ERAGIKETA ARRUNTAK.

1. Kapitulua. Pertsonal gastua.

Oinarrizko garrantzia izaten segitzen du gastu osoarekiko, izan ere, gastuen heren bat baino gehiago hartzen baitu bere baitan.



Kapitulu hau aurreko urtean bezala mantentzen da, igoera txiki batekin, oraingo urte honetan ere, beste behin, langileen soldatak izoztuta geratu direlako, Gobernu zentralak derrigorrez bete beharreko eman dituen arauak diotena betez.

Aurten, kapitulu honetan, Eusko Jaurlaritzak lanik ez duten pertsonak kontratatzeke garatu dituen enplegu planetatik datozen kontu-sailak sartuko dira, udalari ahalegina egitea eskatuko diotenak. Aldi berean, herriko hormetako pintadak eta graffitiak garbitzeko langile batzuk kontratatzea aurreikusi dugu, izan ere, pintadak ikaragarri ugartu baitira eta beharrezkoa egiten da garbitzea.

2. Kapituluak, Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzutan.

Hiritarrendako sentiberak diren zerbitzuei ez bazaie ezer kendu ere -horixe izan baita beti hartu izan dugun konpromisoa- dagoeneko urteak daramatzagu krisialdi egoeran, eta horrek, azken jardunaldi hauetan gastu arrunta doitzera eta kontu-sailak arrazoitzera behartu gaitu.

2015 urte honetan % 2,5a baino igoera zertxobait handiagoa aurreikusten da, baina beti ere gastua kontrolatzeko eta arrazionalizatzeko irizpideak betez.

3. kapituluak. Finantza gastuak.

Lehen adierazi dugun bezala, udal honek duen zorpetze-maila ez da arduraz hartutakoa bakarrik, baita kontrolatua eta zeharo onargarria ere. Beraz, kapitulu honetan jasotzen diren zenbatekoek ez dute garrantzizko aldaketarik izango aurreko urteetan izan direnekiko.

4. kapituluak. Transferentzia arruntak.

Kapitulu honetan islatzen da espezifikoki hondakin bilketa zerbitzuaren kudeaketa osoa Debabarreneko Mankomunitateak bere gain hartu duela eta horrek dakarren ondorio ekonomikoa. Desagertu egin da kapitulu honetatik Mankomunitateari 2.5 milioi euro



transferitzeko aurreikuspena, haren eskuetan utzitako zerbitzuen ordainez ematen zitzaiona. Beraz, kapitulu honek jaitsiera handia jasan du.

Kontzeptu berdinetan konparazioa eginez gero, kapitulu honek igoera hautemanekin bat izango luke aurreko jardunaldiarekiko.

Kapitulu honetan islatzen dira beren jarduera eramateko udalak beste erakunde, entitate, elkarte eta taldeei ematen dizkien laguntzak.

B. ERAGIKETA ARRUNTAK.

6. kapitulua. Inbertsio errealak.

Gainetik egindako azterketa azkar batean ikusi ahal daitekeenez, joan zen urtearen antzeko zenbatekoetan mugitzen gara, baina, kontuan hartuta, joan zen urtean Eusko Jaurlaritzak 3,1 milioi euro jarri zituela eta aurreko 2,5 milioi ipiniko dituela, garbi geratzen dena hau da: udalak bere baliabide propioekin inbertitzeko duen ahalmenak ia % 35 inguruko igoera izan duela, eta horrek argi eta garbi erakusten du funts publikoen gestioa zuzena izan dela; krisialdian egonik ere, hirian inbertsioak eginda, gure hiritarren bizi-kalitatea hobetzeko kontu-sail garrantzizkoak erabiltzen uzten diguna.

Azkenean, nahiz baliabide propioekin, nahiz PSE-EEK Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontuetan zuzenketak sartzeari esker erakarrirako laguntzarekin, 5 milioi euro baino gehiago ditugu hiritarrek helarazi izan dizkiguten eskariei erantzun ahal izateko; zalantzarik gabe, hiria hobetzen lagunduko duten eskariak. Egia da zenbateko horrekin ez direla betetzen oraindik egiteke dauden premia guztiak, baina aldi berean, gure konpromisoak betetzeko ildo horretan aurrera egiten utziko digu, horixe baita gure kudeaketa beti gidatzen duen ildo.

Bigarren urtez, kapitulu hau, lehen aipatu dugun Eusko Jaurlaritzaren akordio horrek markatzen du kuantitatiboki eta kualitatiboki, horri esker 2,5 milioi euro izango baititugu hirian inbertitzeko.



Irisingarritasuna hobetzeko jarduerak eta egitekoak garatzen segitu nahi dugu; beraz, urte honetan, Eulogio Garate eta Mutiola kaleen arteko igogailu publikoa egingo da, eta horrek asko hobetuko du, - Bista Eder eta Eulogio Garate kaleen artean dagoeneko egindakoarekin batera- hiriaren alde horretako irisingarritasuna.

Horrekin batera, herritarrekin hartu eman etengabean aritu ondoren eta haiek egindako proposamenak eta iradokizunak aztertu ondoren, herriko hainbat lekutan hobekuntzak egitea beharrezkotzat ikusi da: Txomoko parkea, Bidebarrietakoak eta Egigurentarren plazakoak.

Ēra berean -eta Eusko Jaurlaritzarekin hitzartu diren egiteko horiek alboratuta- eraginkortasun energetikoko neurrietan inbertitzen jarraitu nahi dugu, bai bide publikoan, bai eraikin publikoetan.

Garrantzia ekonomiko handia du "Obra txikiak" izeneko kontu-sailak, 500.000 euro baino zertxobait gehixeagoko zuzkidura duena, batik bat, auzoetan egin izan diren bileretan egindako eskaera guztiei erantzuten joatekoak.

Horrekin batera, Astelena frontoiaren irisingarritasuna hobetzen ahaleginduko gara igogailu bat jarrita; gure konpromisoa betetzen jarraituko dugu baserrietako azpiegiturak hobetuta; ikastetxeetan inbertsioak eginda; hiri-ekipamenduak eta iturriak eta lorategiak kontserbatuta eta hobetuta.

Kapitulu honen azkenerako utzi nahi izan dut ondoren aipatuko dudan atal hau, izan ere, niretzat, betetzen ari garan prozesua eredugarria baita: Errebaleko ekipamendu soziokultural berriaz ari naiz, urte honetan haren obrak egiten hasteko 500.000 euroko lehenengo kontu-sailean dagoeneko islatzen den asmoa.

Joan zen urteko memorian zehazten genituen urte honetan eman beharreko pausuak edo urratsak. Hortaz, pausu horiek ematen joan gara: gaur egun proiektua erredaktatzeko taldea lanean ari da eta datozen hileotan amaitua izango du; proiektu horrek hezurramitu diren parte-hartze prozesuen emaitzei zintzotasunez jarraituko die eta, horren ondoren, obren lizitazioari hasiera emango diogu. Gogoratu behar da baita milioi erdi euro horiekin batera Udalak beste 2 milioi euro dituela gordeta, urte anitzeko



bati erantsiko dizkionak eta proiektu horren finantzazioa, funtsez, dagoeneko bermatzen dutenak.

7. kapitulua. Kapital transferentziak.

Kapitulu hori bi jarduera zehatz hauetan desglosatzen da:

- Aurrenik, bete egin behar dugu Eusko Jaurlaritzarekin izenpetutako hitzarmena, gure hiriko trenbidea estaltzeko proiektutik sortutako gure obligazioekin aurrera egin ahal izatekoa. Atzerapen txiki batekin bada ere -izan ere, joan zen urtean aurreneko hiru hilabetekoaz hitz egiten baikenuen- ekainerako Amañako obrak amaituta edukitzea itxoiten da, eta auzo hartako jendeari obra horrek eragozpen asko eta denbora luzez ekarri badio ere, gure hiriak dituen zailtasun orografikoak kontuan hartuta, oinezkoendako pentsatu ezinezko lekua sortu du.

- bigarrenik esan behar dena da, kapitulu honetan, dagoeneko historikoa bilakatzen ari den konpromisoa islatzen dela, auzo elkarteekin fatxadak berriztatzeko eta igogailuak ipintzeko edo zaharrak kendu eta berriak ipintzeko eta irisgarritasuna hobetzekoak.

8. kapitulua. Finantza-aktiboak.

Beste kapitulu batzuetan bezala, horren presentzia anekdota hutsekoa da, eta ez du eraginik aurrekontuaren osotasunean.

9. kapitulua. Finantza-pasiboak.

Hori da udalak duen zorrari zuzentzen zaion zenbatekoa, eta Udal Kontu-hartzailatzatik kontrolatutako eta egonkortutakotzat hartzen dena.

Memoria honekin gure agintaldiaren laugarren eta azken Aurrekontua aurkezten dugu. Agintaldi hau krisialdi ekonomikoak markatu du, gure familien ekonomikoari nahiz udalaren ahalmen ekonomikoari eragin die. Datu bat ematearren esan, joan zen urteko



Baina hala ere, nire ustez, agintaldi hau bere osotasunean hartuta, testuinguru sozioekonomiko honetan derrigorrez lehentasunezkoak izan behar ziren helburuak betetzen joan dira.

Gauza izan gara udalaren eskuetan dauden zerbitzuak inongo murrizketarik egiteke mantentzeko; nahi izan dugu zailtasun handienak zituzten familiengandik gertuen egon den Administrazioa izatea, familia horiek babestearren gizarte ikuspegitik erabaki sendoak bezain garrantzizkoak hartuta; Sail espezifiko bat ere sortu dugu, Ekonomia Garapena, Enplegua eta Berrikuntza Saila, udaletik bertatik, hiriko sektore ekonomikoekin lan egiteko xedez, krisialdetik ateratzeko sektore horren estrategien alde beharra egitearren; indartu egin dugu hiritarren presentzia etengabea udal kudeaketan eta parte hartze horren bidez programatu ditugu gure jarduketa asko eta asko; gauza izan gara, krisialdian egonik ere, agintaldi honetan 20 euro milioi inbertitzeko, gure hirian, alde batetik bestera, egin diren hobekuntzetan inbertitzeko.

Azken batean, alderdikeriarik gabeko edozein behatzailek aterako lukeen ondorena hauxe izango litzateke: hiri honek, krisialdia izan arren, aurrera egin duela: Askok dela egin dena; asko dago oraindik egiteko; eta horixe da hain zuzen ere niri, alkate naizen honi, gehien motibatzen nauena, denon artean, aurrean, etorkizunean ditugun erronka horiek, horrela, denon artean, hiri hobeto batez gaudituko baikara. Gogoia, konpromisoa, beharra, ilusioa eta erantzukizun asko Eibarko hiriaren etorkizunaren alde lan egiteko. Horiexek dira nire gestioaren nortasunaren bereizgarriak.

Eibarren, 2014ko otsailaren 4an

MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL.

